Urteko jarraipen-txostena

EZKERRALDEA-MEATZALDEKO ESKUALDE-PLAN ESTRATEGIKOA

2023

BIC BIZKAIA EZKERRALDEA UP! EUSKADI

Ezkerraldea-Meatzaldeko Eskualde Plan Estrategikoko 47 jarduketa.

Jarduketa horien helburua lehentasunezko ekite-eremuak indartzea da, zenbait funtsezko eremutan: ekonomiaren suspertzea, enplegua, gizarte-kohesioa, hiri-berroneratzea, eta mugikortasuna eta jasangarritasuna.

6 trakzio-proiektu

1. EZKERRALDEA-MEATZALDEA PARKE TEKNOLOGIKOA
   6 jarduketa.

2. OSASUN POLOA: MED TECH PRODUKTUAK ETA ZERBITZUAK
   2 jarduketa.

3. KUTSATUTAKO LURZORUAK BERRESKURATZEA
   5 jarduketa.

4. AUZO KALTEBEREN JARDUKETA INTEGRALA
   8 jarduketa.

5. GARRAIO JASANGARRIAREN EREDUA. BILBO-MUSKIZ C2 LINEAKO JARDUKETA
   11 jarduketa.

6. INDUSTRIA-ONDAREAREN ETA ITSASADARRAREN BALORIZAZIOA
   15 jarduketa.

47
JARDUKETA

EZKERRALDEA MEATZALDEA		JARDUKETAK	EJ	BFA
EM1 Ezkerraldea/Meatzaldea Parke Teknologikoa	EM1.01	Energy Inteligence Center eta egoitza-eraikina	X	X
	EM1.02	EMPTrako sarbideak eta urbanizazioa	X	X
	EM1.03	Ekipamendua	X	X
	EM1.04	María Telkes eraikina	X	
	EM1.05	Ortuellan lursailak erostea	X	
	EM1.06	Ezkerraldea - Meatzaldea Parke Teknologikoaren garapena	X	X
EM2 Osasun Poloa: Med-Tech produktuak eta	EM2.01	Inbertsioa kokapenean	X	
	EM2.02	Enpresa biosanitarioen eraikina	X	X
EM3 Kutsatutako lurzoruak berreskuratzea	EM3.01	Burtzeña Parkea (lurzoruak erosi eta erremediatzea)	X	
	EM3.02	Plaiabarri eta Sakoni, Erandio (lurzoruak erosi eta erremediatzea)	X	
	EM3.03	Etxeuli, Santurtzi (lurrak erosi eta erremediatzea)	X	
	EM3.04	Navacel eraikina (erostea eta birgaitzea)	X	
	EM3.05	Babcok Trapaga jantokiak erostea	X	
EM4 Auzo kalteberen jarduketa integrala	EM4.01	ABANTO-ZIERBENA Las Peñucas auzoa (200 etxebizitza)	X	
	EM4.02	PORTUGALETE Esku-hartzea GRUMETE DIEGO kalean (23 etxebizitza)	X	
	EM4.03	SANTURTZI Esku-hartze AURORA VILDÓSOLAn (104 etxebizitza)	X	
	EM4.04	TRAPAGARAN SAN ANDRES AUZOA (135 etxebizitzaren eremua)	X	
	EM4.05	TRAPAGARAN SAN ANDRES AUZOA (60 etxebizitzaren eremua)	X	
	EM4.06	Etxetic proiektua		X
	EM4.07	Sestaoko egoitza, bizikidetza-unitateen eredupean		X
	EM4.08	Egoitzak bizikidetza-unitate bihurtzea		X

2023an bilduriko jarduerak

EZKERRALDEA MEATZALDEA		ACTUACIONES	GV	DFB
EM5 Movilidad sostenible / Actuación sobre línea C2	EM5.01	Intercambiador de Urbinaga	x	
	EM5.02	Bizkai Bizi		x
	EM5.03	Bizkai Park		x
	EM5.04	Bizkai Punto		x
	EM5.05	Bulevar Erandio		x
	EM5.06	Puente móvil Barakaldo Erandio		x
	EM5.07	Bidegorri (Bilbao – Barakaldo)		x
	EM5.08	Accesos Hospital de Cruces desde Ezkerraldea		x
	EM5.09	Subfluvial, túnel bajo la Ría		x
	EM5.10	Bidegorri Mamariga Santurzti		x
	EM5.11	Intercambiador II Cruces dirección Rontegi - Cruces		x
EM6 Valorización Patrimonio industrial de la Ría	EM6.01	Restauración de Alto Horno Sestao y creación de Centro de Interpretación	x	x
	EM6.02	Centro de Patrimonio Industrial Orconera	x	
	EM6.03	Ruta Patrimono Industrial	x	
	EM6.04	Acondicionamiento Estaciones históricas RENFE + Tren histórico	x	
	EM6.05	Gasolino	x	
	EM6.06	Museo Rialia	x	
	EM6.07	Espacio de recepción de visitantes en Alto Horno de Sesato y Vivienda Obrera	x	x
	EM6.08	Vía Verde Montes de Hierro	x	
	EM6.09	Vía Verde Itsalur y conexión Cantabria	x	
	EM6.10	Señalética, Plan de Posicionamiento, Modelo de Gobernanza	x	
	EM6.11	Rehabilitación Bonitera Agurtza	x	
	EM6.12	Rehabilitación locomotora de AHV	x	
	EM6.13	Ferrería del Pobal		x
	EM6.14	Eventos para valorización de la Ría y patrimonio industrial		x
	EM6.15	Colaboración Cátedra Unesco		x

2023an bilduriko jarduerak

1.1. JARDUKETEN AURRERAPEN-MAILA



Amaituta	20
Egikaritzen	21
Diseinatzen	5
Hasi gabe (Urbinaga)	1
Ezeztaturik	0

1.3. EUSKO JAURLARITZAREN BERPIZTU JARDUKETEN AURREKONTU BETEARAZPEN OROKORRA

EM 1		
Ezkerraldea-Meatzaldea Parke Tekonologikoa	**10.000.000 €**	
	10.000.000 €	
EM 2		
Osasun poloa: Med-Tech produktuak eta zerbitzuak	**10.000.000 €**	
	8.740.000 €	
EM 3		
Kutsatutako lurzoruak berreskuratzea	**60.000.000 €**	
	60.000.000 €	
EM 4		
Jarduketa integrala auzo kalteberetan	**14.000.000 €**	
	9.923.903 €	
EM 5		
Mugikortasun jasangarria. C2 lineako (Bilbo-Muskiz) jarduketa	*** 4.000.000 €**	
	0 €	
EM 6		
Industria-ondarearen eta itsasadarraren balorizazioa	**10.000.000 €**	
	10.000.000 €	

EM 1	% 100
EM 2	% 87,4
EM 3	% 100
EM 4	% 70,8
EM 5	% 0
EM 6	% 100

* EM5 ataleko 4 milioi euroak "Ezkerraldeko auzoetako hiri-birgaitzea" atalera bideratzen dira; izan ere, Urbinagako jarduketak badauka kontsignazioa eta bere prozesua du.

Planifikatutako aurrekontu orokorra

Egikaritutako aurrekontu orokorra

Planifikatutako aurrekontua	Aurrekontu egikaritua	Aurrekontu-egikaritzea
108.000.000 €	**98.663.903 €**	**% 91,2**

1.3. BIZKAIKO FORU ALDUNDIAREN JARDUKETEN AURREKONTU-EGIKARITZE OROKORRA

EM 1

Ezkerraldea-Meatzaldea Parke Tekonologikoa

29.079.529 €
27.535.339 €

EM 2

Osasun poloa: Med-Tech produktuak eta zerbitzuak

500.000 €
0 €

EM 3

Kutsatutako lurzoruak berreskuratzea

0 €
0 €

EM 4

Jarduketa integrala auzo kalteberetan

1.850.000 €
0 €

* **EM 5**

Mugikortasun jasangarria. C2 lineako (Bilbo-Muskiz) jarduketa

34.794.680 €
6.906.532 €

* **EM 6**

6. Industria-ondarearen eta itsasadarraren balorizazioa

1.155.595 €
828.450 €

EM 1	% 95
EM 2	% 0
EM 3	-
EM 4	% 0
EM 5	+% 19,8
EM 6	% 71,7

* Berrantolatu egiten dira mugikortasun jasangarriko jarduerak EM5 trakzio-proiektuan, hobeto egokitzeko, eta aurrekontua berriro sailkatzen da EM5 eta EM6 trakzio-proiektuen artean.

Planifikatutako aurrekontu orokorra

Egikaritutako aurrekontu orokorra

Planifikatutako aurrekontua	Aurrekontu egikarituta	Aurrekontu-egikaritzea
67.379.804 €	**35.270.321 €**	**% 52,3**

1.4. PROIEKTU ERAGILEEN AURREKONTU BETEARAZPEN OROKORRA

TRAKZIO-PROIEKTUAK			PLAN ESTRATEGIKOAREN AURREKONTUA		
			ESLEITUA	EGIKARITUA	% egikaritua
EM1	Ezkerraldea-Meatzaldea Parke Teknologikoa + EIC	EJ	46.195.267	47.223.329	% 102
		BFA	29.079.529	27.535.339	% 95
		GUZTIRA	**75.274.796**	**74.758.668**	**% 99**
EM2	Osasun Poloa. Osasun-sistemara bideratutako produktuak eta zerbitzuak garatzeko nodoa	EJ	10.000.000	8.740.000	% 87
		BFA	500.000	0	% 00
		GUZTIRA	**10.500.000**	**8.740.000**	**% 83**
EM3	Kutsatutako lurzoruak berreskuratzea	EJ	60.000.000	60.000.000	% 100
		BFA	-	-	-
		GUZTIRA	**60.000.000**	**60.000.000**	**% 100**
EM4	Auzo kalteberen jarduketa integrala	EJ	14.000.000	9.923.903	% 71
		BFA	1.850.000	0	% 00
		GUZTIRA	**15.850.000**	**9.923.903**	**% 63**
EM5	Garraio jasangarriaren eredua. C2 linearen jarduera. (Bilbao-Muskiz)	EJ	4.000.000	0	% 00
		BFA	34794680	6.906.532	% 20
		GUZTIRA	**38.794.680**	**6.906.532**	**% 18**
EM6	Industria-ondarearen eta itsasadarraren balorizazioa	EJ	10.000.000	10.000.000	% 100
		BFA	1.155.595	828.450	% 72
		GUZTIRA	**11.155.595**	**10.828.450**	**% 97**
EM EPE GUZTIRA			**211.575.071**	**171.157.553**	**% 81**
EUSKO JAURLARITZA			**144.195.267**	**135.887.232**	**% 94**
BIZKAIKO FORU ALDUNDIA			**67.379.804**	**35.270.321**	**% 52**

EM1. Ezkerraldea-Meatzaldea Parke Teknologikoa + EIC

PARKE TEKNOLOGIKOA: Abanto udalerrian kokaturiko parke berriak 500.000 metro koadroko azalera du, eta horietatik 241.000 eraikigarriak dira. 2023an, industria-erabilerarako lurzoruaren % 20 okupatu da, honela banatuta:

- Egoitza-eraikinak, EICk eta María Telkesek 21.000 metro koadro hartzen dituzte.
- Petronorrek 13.000 metro koadroko partzela bat erosi du.
- ADIk 11.000 metro koadroko partzela bat erosi du, eta dagoeneko hasi du obra.

SARBIDEAK ETA URBANIZAZIOA: Parkera sartzeko lanak 2019ko urrian hasi ziren eta 2021eko urrian amaitu.

EIC + EGOITZA-ERAIKINA: Eraikinen azalera erabilgarria: 10.047 metro koadro. EIC zentroak 5.628 metro ditu; bulegoak eta laborategiak dituzten lau solairutan eta industria-nabe batean dago banatuta, eta % 98ko okupazio-maila du. Egoitzak, berriz, 4.419 metro eta % 34ko okupazio-maila ditu. 2021ean hasitako jarduera 2023ko lehen seihilekoan amaitu da. Aurten, Petronorrek eta taldeko enpresek okupatu dute EICren hirugarren solairua. 2024. urteko lehen hiruhilekoan bigarren solairua hartuko da, eta honako enpresa hauek egongo dira bertan: Bureau Veritas, Ampo, Vicinay, Tubacex eta Tubos Reunidos.

EKIPAMENDUA: EIC eraikina laborategiko eta makinetako ekipamenduz hornituko da (testatze-hodiak, ganbera hiperbarikoa...), teknologikoki puntakoak diren ekipamenduak baliozkotzeko eta frogatzeko azpiegitura gisa. Aurreikusten denez, laborategiak martxan egongo dira 2024. urtean, eta makinak, berriz, 2025. urtean.

MARÍA TELKES: Eraikinak 8.700 metro koadro ditu, 6 solairutan banatuta. Eraikin horrek osatuko du EICa eta ezaugarri bereziagoak dituzten proiektuak hartzeko gaitasuna duten industriaurreko espazioak hartuko ditu, horien artean Hidrogenoaren Living Laba.

ELIKAGAIEN CAMPUSA: Ortuellako Ezkerraldea-Meatzaldea Parke Teknologikoan instalatuko da. 50 hektareako azalera okupatzea aurreikusten da. Gaur egun, lursailaren % 55 titulartasun publikokoa da (201.000 metro Teknologi Elkartegia SArenak dira eta 50.000 metro Ortuellako Udalarenak).

María Telkes

Egoitza-eraikina eta EIC

EM2. Osasun Poloa. Med Tech produktuak eta zerbitzuak

SESTAON LURSAIL BAT EROSTEA: SPRILURek partzela bat erosi du Sestaon, gailu medikoetarako baliozkotze- eta ziurtapen-sistemetan espezializatutako enpresentzako zerbitzu-zentro bat kokatzeko.

ENPRESA BIOSANITARIOEN ERAIKINA: 2023. urtean proiektua idatzi eta obra lizitatu da, eta kalkulatzen da 2024. urteko lehen seihilekoan hasiko dela. 18 hilabete iraungo dute lanek, eta 2025. urtearen amaieran amaitzea dago aurreikusita. Eraikinak 8 solairu izango ditu (beheko solairua + 6 solairu eta sotoa). Eraikitako azalera, guztira, 13.524,42 metro koadro.

EM3. Kutsatutako lurzoruak berreskuratzea

LURRAK ERREMEDIATZEA: Sprilurrek lurra erremediatzeko proiektuak hasi ditu Barakaldon, Sestaon, Trapagaranen, Erandion eta Santurtzin, Ezkerraldean 600.000 metro koadro inguruko azalera berroneratzeko eta balioa emateko. Lurzoru horiei esker, eskualdean garapena eta enplegua bultzatzen duten ekimen, proiektu estrategiko eta inbertsioak erakartzeko aukera izango da.

BURTZEÑA: SPRILUR eta Burtzeña Enpresa Parkearen arteko lurzoruaren jabetzaren % 80 dago eskura. 2023an aurrera egin da lurrak erremediatzeko ingurumen-espedienteen izapideetan, eta 70.000 metro koadro inguruko azalera duten lurzatien erremediatze-planaren zati bat lizitatu da —Burtzeña-Barakaldoko ontzioletako eta zentral termikoko partzela zaharrak—. Lurrak erremediatzeko lehen fasea 2024ko otsailean hasiko da.

PLAIABARRI–SAKONI ERANDIO: Hainbat jaberekin egin dira lurzoru-erosketak, eta jabetzaren gehiengoa eskuratu da sektore guztietan. Bost sektoretan banatutako eremua da, bost urbanizazio-proiekturekin eta sektore guztiak hartzen dituen azpiegiturak garatzeko plan orokor batekin. D sektorea ia urbanizazio-obrei ekiteko fasean dago.

ETXEULI SANTURTZI: Zabortegia zigilatzeko proiektua eta lursailetik igarotzen den ibaian egin beharreko jarduketa idazten ari dira.

NAVACEL TRAPAGA: 2021eko abenduan pabiloiaren erosketa itxi zen, eta eraikina birgaitzeko proiektua idazteko lizitazioa egin da.

BABCOCK JANTOKIAK: 2023an, Babcockeko eraikin zaharren zati bat erosi zaio SEPIDESi.

Burtzeña

Etxeuli - Santurtzi

EM4. Auzo kalteberen jarduketa integrala

ABANTO-ZIERBENA: 200 etxebizitza Peñucasen.

PORTUGALETE: 23 etxebizitza Grumete kalean.

SANTURTZI: 104 etxebizitza Aurora Vildósolan.

TRAPAGARAN: 198 etxebizitza San Andres auzoan.

ETXETIC: Sestao Berria Eguneko Zentroa ETXETIC eredu bihurtuko da. Eredu horrek eguneko arreta-zerbitzua (Eguneko Zentroa) eta etxean egoteko laguntza-zerbitzua konbinatuko ditu.

BIZIKIDETZA-UNITATEAK: Azpiegiturak sozietate publikoaren egoitzak: Marcelo Gangoiti (Muskiz), Albiz Santiago Llanos (Sestao) eta Otxartaga (Ortuella) zentroek gune batzuk eraldatuko dituzte zentroa bizikidetza-unitate bihurtzeko. Aldi berean, Sestaoko Rebonza auzoan egoitza berri bat egingo da, bizikidetza-unitateen 120 plazarekin.

EM5. C2 lineako (Bilbo-Muskiz) jarduketa.
Garraio jasangarriaren eredua.

URBINAGAKO ALDAGELTOKIA: Lurraldearen Plangintza Sailari transferitu zaio proiektu horretarako 4 milioi euroko partida, hau da, Ezkerraldeko auzo kalteberen hiri-birgaikuntza egitasmorako.
Jarduketa horrek baditu beste finantzaketa-iturri batzuk, eta ADIFen eta CTBren arteko izapideen zain jarraitzen du, eraikuntza- eta finantzaketa-hitzarmena onesteko, sinatzeko eta ADIFek obren lizitazioaren izapideak hasteko.

MUGIKORTASUN JASANGARRIA: 2022az geroztik, hiru programa daude martxan bizikleta joan-etorrietarako erabiltzea sustatzeko: BIZKAI BIZI (bizikleta elektrikoen alokairua, lau udalerrik bat egin dute harekin), BIZIPUNTO (bizikletak konpontzeko eta garbitzeko estazioak, erabilera librekoak eta doakoak) eta BIZIPARK (bizikletentzako aparkaleku seguruak, herritarren artean garraiobide horren ohiko erabilera sustatu nahi dutenak, bizikleta partikularrekin).
Ildo beretik, Erandioko bulebarra, Barakaldoko eta Mamarigako (Santurtzi) bidegorria eta halako jarduketak bultzatu dira, Ezkerraldeko eta Bilboko bidegorri-sareekin lotzeko.

BIDE-MUGIKORTASUNA ETA KOHESIOA: 2023an, eskualdean mugikortasun-jarduera berriak abian jartzea bultzatu da:
- Itsasadarraren gaineko zubi mugikorraren obrak hastea.
- Gurutzetako Ospitaleko sarbideak Ezkerraldetik.
- Ibai azpikoaren proiektua idaztea.
- Gurutzetako aldageltokia II proiektua idaztea, Arrontegi-Gurutzeta noranzkorako.




bizkaibizi

Erandioko bulebarra



Erandio-Barakaldo zubia

Barakaldoko bidegorria

EM6. Industria-ondarearen eta itsasadarraren balorizazioa

INDUSTRIA-ONDAREA BERRESKURATZEA - INTERPRETAZIO-ZENTROA:

- Labe garaia (irisgarritasuna hobetzea eta balioa ematea)
- Orconera ondare-zentroa (bi pabiloi berreskuratzea, erdiko pabiloi bat eraikitzea eta industria-ondareko 1.800 pieza lekuz aldatzea)
- Pobaleko burdinola (gurpila eta hauspoa berreskuratzea eta ubidea hobetzeko proiektua egitea)
- Rialia Museoa (klimatizazio-baldintzak egokitzea, espazioak eta ekipamenduak berrantolatzea)
- Sorospen Etxea (turismo-informazioko zentro eta dibulgazio-gune bihurtzeko proiektua)

ONDAREA BERRESKURATZEA - TURISMO-ESKAINTZA: Industria-ondarea berreskuratzen ari da, eta balio handiko kultura- eta turismo-eskaintza ari da sortzen itsasadarraren inguruan. (Renferen geltoki historikoak, langileen etxebizitza, Itsaslur, Burdin Bideen Bide Berdea, Agurtza hegaluze-ontzia, BLG lokomotorra).

TURISMOA DINAMIZATZEA: Unesco Katedrarekin lankidetzan aritu gara aholkularitza tekniko-zientifikoko lan bat garatzeko. Lan horrek Bilbao Bizkairako turismo industrialeko produktu bat gauzatzeko oinarriak ezartzen ditu, Ezkerraldeko zein Enkarterriko EPEek ezarritako helburuei eta irizpideei jarraikiz.

TURISMOA SUSTATZEKO EKITALDIAK: 2023an, 1000 Gradutan musika-zikloaren esparruan, hainbat musika-emanaldi egin dira industria-ondarearen erreferentziazko espazioetan: Labe Garaia Sestaon eta Zugaztietako aintzirak Trapagaranen. Jarduerekin batera, tokiko produktua eta turismo-komunikazioa sustatzeko ekintzak egin dira.

Labe
garaia

Orconera industria-ondarearen zentroa

Lutxanako geltokia

Sorospen Etxea (Turismo Bulegoa)

Gasolinoa

Itsaslur Bide Berdea

Burdin Mendien Bide Berdea

Agurtza hegaluze-ontzia

BLG lokomotorra